



Aspalditxoko sokamuturra

Oñatiko jaixetan, San Migel eta Errosarixoko bixamonetan, zezenak inportantzia haundixa euki daue. Garai batian korridak be izaten ei ziran; baiña XX. mendian inddar gehixen sokamuturrak hartu eben. Soka luze batekin lotu eta bazterrik bazter —Kale Barriko puntatik Kale Zaharreko barreneraño— ebalten zan zezena, orain baiño kotxe gutxiago ebillenian. Batzuk aurreratxuago, beste batzuk atzeratxuago, herriko gazterixa gehixena inguraketan zan Lastur aldetik ekarten zittuain idiskuengana. Iragoko urte honeittan soka barik eta plaza inguruan bakarrik errenditten dana, lehen kalerik kale egitten zan herri guztian zihar.

Fotografixa honetan ikusten dittugun mutikotiak 17-22 urte bittartekuan izango dira gehixentxuenak. Neska banakia be agiri da. Balientieniak zezenaren onduan, atzetik be mordoskia, eta, argazkixan agertu ez arren, aurretik beste hainbeste Zazpibidetatik zihar Kale Zaharrian behera. Kaliak asfaltauta dagozela eta gaztion itxuria kontuan izanda, erretratu honi hogeita hamabost bat urte bota geinskio; hau da, 1962 edo 1963 aldera ataratakua izan leike. Pillatxo bat ezagutu dogu, nahiz eta batzuetan segurantzia osorik ez izan. Agustiñoetako estudiante batzuk be *toreruen* artian dabitzela esango geuke. Ezkerretik eskumara hona batzuen izenak:

Ezker aldian, bestiak beste: Rikardo **Mendiguren** (?), Jexux **Mugartza**, Juan Kruz **Urtaza Kirrin**, Iñaxio **Aristegi Eskolatxo**, Kamaramuñoiko **Arkauz** anaiak, honein tartian Rafael **Zelaia**, atzerago Kontxita **Urtaza Kirrin** (?) eta Pilar **Igartua Arrue**, Pedro **Urtaza Kirrin**, Anjel **Leturiaga Exibai**, Andres **Antigua Lezesarri**, Joxe Mari **Guridi**, Joxe Mari **Lukas** (?) eta abar.

Erdi inguruan: Joxe Mari **Egaña** zezenaren aurrian; sokiari eusten Pako **Zelaia**, Jexux **Bikuña**, Pako **Urrestarazu Attaun** eta beste batzuk; honein albuana Alberto **Etxeberria** eta Nikolas **Ugarte** ezagunen artian.

Eskumako aldian, barriz: atzera antzian Roke **Ezeolaza**; zezenaren inguruan Jabier **Iraola Txapa** eta Jose Luis **Inza Txaiña**; erdiko multzo batian Anastasio **Egaña**, Karmelo **Arabiourrutia**, Fernando **Letamendi**, Pedro Mari **Zabaleta Eperretxe** eta Antonio **Mugartza**; ezkiña aldian Joxe Luis **Igartua Txelis**, Karlos **Anduaga Xokero** eta Alberto **Guridi**. Eta identifikau ez tittugunak, jakiña. Ia gu baiño bista hobia dakozen eta falta diranak ezaguketan lagunketan doskuzuen!

J. E.

Eskerrak Joxe Fernandezeri fotografixia jaretiagatik eta Dorita Sukia eta Pedro Agirrerri argittasunak emutiagatik.